

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko urtarrilak 28ko bileraren ondorio nagusien sintesia

I Atala. Ohiko gaiak

1. Informazioak

1.1. Bisita Showroom Greenloft-era

Greenloftek Basaurin duen erakusketa-eremua bisitatzeko gonbidapena egin da, eta erabaki da datozen egunotan bisita bat antolatzea. Bisita horren hitzordua mezu elektronikoz bidaliko da, asistentzia konfirmatzeko.

II. Atala. Lehiaketa publikoaren kontratazio-mahaia: etxeko landare-olioa biltzeko zerbitzua

Txosten teknikoaren berri izan ostean, kontratua sinatzeari uko egin zaio eta esleipen-prozedura bertan behera uztea erabaki da. Ondoren, erregulazio harmonizatuaren arabeko prozedura bidezko lizitazio berria hasiko da.

III. Atala. Hondakinak biltzeko kontratuak multzokatzeko proiektua.

Ekoiure-Inguru-Cimas ABEEK hondakinak biltzeko kontratuak multzokatzeari buruzko bideragarritasun-azterketa aurkeztu du. Aurkezpena erantsita bidali da. Eztabaidatu ostean, hauxe erabaki da: 1) bilera monografikoa antolatzea kontratazioaren arduradunekin edota idazkariekin, epea beteta duten kontratuen jarraipena aztertzeko; 2) proposatutako ereduaren balioztatzea bulegoari helaraztea; 3) udalerrri bakoitzeko diagnostikoak laguntza teknikoarekin balioztatzea edo osatzea, zuzenean.

Kontratuak multzokatzeari buruzko hurrengo bilera otsailaren 25ean (asteazkena) izango da, 9:00etatik 11:00etara. Bertan, zerbitzu berriaren proposamena aurkeztuko da.